



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.12.15ean EGINDAKO  
BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

MAITE ANTON LENO

OÑATI

**BOKALAK**

GARAZI LARREA ZUMELAGA  
UNAI ELKORO OIANGUREN  
AINHOA CABERO GARCIA  
MARIA UBARRETXENA CID  
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA  
ANDER GARAY ZABALETA  
GORKA ARTOLA ALBERDI  
AINHOA LETE ZABALETA  
CRISTINA MARQUINA IGARZA  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA  
EUGENIO OTSOA UGALDE  
IZARO ELORZA ARREGI  
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
ESKORIATZA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI

**ETORRI GABEAK**

ARITZ MURUA ACHA

ARRASATE

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2020ko abenduaren 15ean, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenen ezarritakoarekin bat etorrituz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egin da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

### **1.- Aurreko bilkurako akta onartzea**

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2020ko azaroaren 24an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

### **2.- ZERBITZU OROKORRAK**

#### **2.1.- 2021eko Aurrekontu Orokorraren eta Plantila Organikoaren hasierako onespina**

2021. ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren behin betiko zirriborroa aurkeztu du kontu-hartzaileak.

Kontu-hartzaileak abenduaren 10ean Ogasun Batzordean onartutakoak azaldu ditu:

"1) 2019ko altxortegi gerakin banaketarena: "2019ko gerakinetik 425.000€ Epeleko itxiera egin ahal izatea bideratzea eta 36.128,16€ udalei itzultzea. 425 mila euroak ekarpen berri bezala kontabilizatuko dira eta itzulketa osoa.

2) 2021eko aurrekontu proposamena ontzat ematearena Leintz-Gatzagak Ogasun Batzordera ekarri duen emendakina onartuz."

Aurrekontuaren onarpena gerakin banaketara lotua dagoela azaldu du kontu-hartzaileak, Epeleko finantzaketa horri baldintzatua baitago.

Idazkariak ohartarazi du Mankomunitateko Estatutuen 25. artikuluen arabera Aurrekontu Orokorra onartzeko gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar dela.

Gobernu Juntak, 9 Juntakideren aldeko botoekin (Maite Antón, Garazi Larrea, Gorka Artola, Ainhoa Lete, Cristina Marquina, Iraitz Lazkano, Eugenio Otsoa, Izaro Elorza eta Anik Zubizarreta) eta 5 abstentziorekin (Unai Elkorro, Maria Ubarretxena, Maitane Muñoz, Ander Garay eta Jose Ramón Zubizarreta) ZERA ERABAKI DU:

1. Hasierako onespina ematea Mankomunitatearen 2021. ekitaldirako Aurrekontu Orokorrari, kapituluaren arabeko ondorengo laburpenarekin:



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	DEITURA	ZENBATEKOA
1	Pertsonal gastuak	2.486.292,29 €
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa	6.337.407,35 €
3	Finantza gastuak	100,00 €
4	Transferentzia arruntak	469.579,36 €
6	Inbertsio errealak	2.091.001,00 €
7	Kapital transferentziak	0,00 €
8	Aktibo finantzarioak	10.820,00 €
9	Pasibo finantzarioak	237.792,12 €
	<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>11.632.992,12 €</b>

### SARREREN EGOERA

KAPITULUA	DEITURA	ZENBATEKOA
1	Zuzeneko zergak	0,00 €
2	Zeharkako zergak	0,00 €
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.378.057,00 €
4	Transferentzia arruntak	7.764.917,00 €
5	Ondarezko sarrerak	18.499,38 €
6	Inbertsioen salmenta	2.500,00 €
7	Kapital – transferentziak	508.293,12 €
8	Aktibo finantzarioak	1.960.725,62 €
9	Pasibo finantzarioak	0,00 €
	<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>11.632.992,12 €</b>



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2. Aurrekontua gauzatzeko araua onartzea.
3. Pertsonal Batzordeak proposatutako 2021. urterako Plantila Organikoari ere, Aurrekontuarekin batera, hasierako onespena ematea.
4. 2021eko Aurrekontuaren eta Plantilaren espedienteak 15 lanegunez jendaurrean ikusgai uztea, eta behin betiko onartuzat jotzea, baldin eta denboraldi horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten.
5. 2019ko altxortegi gerakinetik 425.000€ Epeleko itxierara bideratzea eta 36.128,16€ udalei itzultzea.

### **2.2.- 2021eko lan egutegiak**

Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ONARTU DITU langileen ordezkariekin negoziatutako 2021. urterako lan-egutegiak. Honako hauek dira:

- Zerbitzu Orokorretako langileen egutegia.
- Kontu-hartzaitzako langileen egutegia.
- Ingurumen Zerbitzuko langileen egutegiak:
  - Bulegoetako langileak.
  - Etxeko hondakin bilketa zerbitzuko langileak.
  - Garbiguneetako langileak.
- Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuko langileen egutegia.
  - Orokorra.
  - Turismo Teknikarien banakako egutegia.

### **2.3.- 2021eko Gobernu Juntaren ohiko bilkuren egutegia**

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU Gobernu Juntaren ohiko bilkuren 2021eko ondorengo egutegia:

- Urtarrilak 26
- Otsailak 23
- Martxoak 23
- Apirilak 27
- Maiatzak 18



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Ekainak 15
- Uztailak 20
- Irailak 28
- Urriak 26
- Azaroak 23
- Abenduak 14

### **2.4.- Foru Kontratazio Zentrala:**

- **Ibilgailuen aseguru kontratu eratorria luzatzea; hirugarren luzapena**

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Departamentuko foru diputatuak, 2017ko azaroaren 6ko foru aginduaren bitartez, BILBAO, COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez ibilgailuen aseguru polizak kontratatzekeo esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu zuen. Kontratu honek urtebeteko indarraldia du, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, hiru luzapen egiteko aukerarekin, bakoitza urtebetekoa.

2020ko abenduaren 1eko foru diputatuaren agindu bitartez, Esparru Akordioa beste urte betez luzatzea ebatzi denez (3. luzapena), eta Mankomunitateak kontratatzen diren aseguru polizen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Beste urtebetez luzatzea (3. luzapena), 2021eko urtarrilaren 1eko 00:00etatik 2021eko abenduaren 31ko 24:00etara bitartean, ibilgailuen aseguru polizak kontratatzekeo BILBAO, COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.
- **Osasun Zaintza zerbitzua emateko kontratu eratorria luzatzea; lehen luzapena**

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Departamentuko foru diputatuak, 2018ko azaroaren 15eko foru aginduaren bitartez, ebatzi zuen QUIRÓN PREVENCIÓN, S.L.U. enpresarekin burutzea Mankomunitate honi dagokion lan arriskuen prebentzio zerbitzuaren lotea Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez kontratatzekeo esparru akordioa.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu zuen. Kontratu honek bi urteko indarraldia du, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

2020ko azaroaren 30eko foru diputatuaren agindu bitartez, Esparru Akordioa urte betez luzatzea ebatzi denez (1. luzapena), eta Mankomunitateak zerbitzu honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea (1. luzapena) lan arriskuen prebentziorako Osasun Zaintza zerbitzua emateko QUIRÓN PREVENCIÓN, S.L.U. enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.

### **3.- INGURUMENA**

#### **3.1.- Sukaldeko olio erabilia biltzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea; proposamenen sailkapena**

Sukaldeko olio erabilia biltzeko kontratazio espedientean bi lizitatzailer aurkeztu ziren, ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. eta RAFRINOR, S.L.

2020ko azaroaren 23an ireki ziren bi proposamenen C gutun-azalak eta aurkeztutako bi proposamenen guztizko puntuazioa kalkulatu ondoren, Kontratazio Mahaiak ikusi zuen puntuaziorik handiena lortu zuen proposamena, RAFRINOR, S.L. enpresarena, anormalki baxua zela, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraikiz, Kontratazio Mahaiak aipatu lizitatzailerari eskatu zion bere eskaintza justifikatzeko eta xehatzeko.

Horretarako emandako epean, RAFRINOR, S.L. enpresak bere eskaintzaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena aurkeztu zuen. Txosten hau sakon aztertu ondoren, Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoak eta kontu-hartzaileak RAFRINOR, S.L. enpresak aurkeztutako txostenari buruzko txostena egin zuten, non aipatu enpresaren eskaintza bideragarria dela ondorioztatzen den. Kontratazio Mahaiak, 2020ko abenduaren 14an egindako bilkuran, txosten hau bere egiten du eta Mankomunitateko Gobernu Juntari proposatzen dio aipatu eskaintza onartzea, txosten honetan jasotako arrazoieta oinarrituta, eta proposamenen sailkapena onartzea.

Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. RAFRINOR, S.L. enpresak sukaldeko olio erabilia biltzeko zerbitzua emateko aurkeztutako proposamena onartzea, bideragarria dela uste duelako, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoaren eta kontu-hartzailearen txostenean jasotako arrazoieta oinarrituta.
2. Proposamenen ondorengo sailkapena onartzea:



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Balio-judizio baten mendeko irizpideak (0-50)</u>	<u>Eskaintza ekonomikoa (0-50)</u>	<u>GUZTIRA (0-100)</u>
1	RAFRINOR, S.L.	25	50	75 puntu
2	ECOGRAS, S.L.	43,5	5	48,5 puntu

3. Saillkapen honen arabera, RAFRINOR, S.L. enpresak aurkeztutako proposamena denez ekonomikoki onuragarriena, aipatu enpresari hamar egun balioduneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 17. 5 klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.

### **3.2.- Epeleko zabortegiko obra txikiaren esleipena**

Epeleko zabortegian gertatutako ur garbien eta gelaxka zaharreko lixibiatuaren konexio arazoaren berri eman da eta arazo hau konpontzeko egindako eta egin beharreko lanena ere.

Kontu-hartzaileak jakinarazi du lan guzti hauek egin ahal izateko gaur bertan 60.000 €-ko kreditu aldaketa bat onartuko dela, lehendakaritzaren ebazpen bitartez.

Besteak beste, bi obra jarduketa egin behar dira:

1. Ur garbien lurrazpiko galeriako ur garbi eta lixibiatuen nahasketa lixibiatuen kasetara konektatu eta ondoren lixibiatuen kolektorerara lotzeko jarduketa.
2. Ur garbien galeriara sartzen den eskorrentia-ura eteteko eta lurrazaleko ur garbien ubidera bideratzeko jarduketa.

Bi jarduketa hauek egiteko Ingurumen Zerbitzuko arduradunaren txostena ikusirik, eta kontuan izanda azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, 118.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, hau kontratu txikia dela.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gastua onartzea, eta CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A. enpresari goian zehaztutako bi obra jarduketa horiek egiteko kontratu txikia esleitzea 39.001,49 €ko prezioan, gehi BEZA.

### **4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA**

#### **4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa**



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- L.G.G. (Goiena Sexologia Aholkularitza); eskaera berria

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: sexologia aholkularitza eta terapia.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- L.G.G. ekintzaileari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (7-ZM) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- G.C. (Blokak Vig. S.L.); eskaera berria

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren industri modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: E-commerce, banaketa eta marketing digitala.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- G.C. ekintzaileari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (8-IM) industri modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- V.D.L. (Banbu); 3. urterako luzapena

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2022ko urtarrilaren 1era arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 2-IM industri modulua erabiltzeko

---

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

baimena, V.D.L. ekintzaileari emana, Gobernu Juntaren 2018ko azaroaren 20ko erabaki bitartez.

### **4.2.- 2020ko Enplegu Plana garatzeko Udalekin lankidetzak hitzarmenak**

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak 2020ko ekainaren 23an (ekainaren 30ean argitaratutakoa) enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntza deialdia onartu zuen. Debagoieneko Mankomunitateak aipatutako deialdiaren markoan bere diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen. 2020ko azaroaren 27ko Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren ebazpen bitartez, Debagoieneko Mankomunitateari 442.079,36 €-ko diru-laguntza ematea erabaki da.

Aipatu Planaren barruan, eskualdeko udalek, 36 lan-kontratu sinatuko dituzte 2020. urtea bukatu aurretik. Kontratu horiek egiterakoan, udal bakoitzak, hautaketa prozesuak burutzeko, Lanbidek, deialdian jasotako betekizunak errespetatuko ditu eta Lanbidek emandako instrukzioak betetzeko ardura hartzen du.

Planaren barnean guztira Debagoiengan 36 kontratu egingo dira (Arrasateko Udalak 15, Bergarako Udalak 6, Oñatiko Udalak 5, Aretxabaletako Udalak 3, Eskoriatzako Udalak 3, Antzuolako Udalak 2, Elgetako Udalak 1 eta Leintz-Gatzagako Udalak 1).

Debagoieneko udalek egingo dituzten kontratuak Lanbidek ezarritako baldintzak beteko dituzte eta beraien ardura izango dira baldintza horiek ez betetzeak ekarri ditzakeen ondorioak.

Kontratatuak diren langabetuen hautaketa eta ordainketak udalek egingo dituzte. Mankomunitateak jasoko duen 442.079,36 euroko diru-laguntza udalei bideratuko die %55 kontratuak egiterakoan eta gainontzeko %45a egindako kontratazioen gastua egiaztatzen dutenean. Beti ere, Mankomunitateak ordainketa horiek, behin diru-laguntzak jaso ondoren, egingo ditu.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Mankomunitateko 8 Udalekin lankidetzak hitzarmenak sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

**“LEHENA.-** .....ko Udalak ..... langabetu kontratatuko ditu. Langabetu horiek kontratatzeko, udalak egin beharreko lan eskaintzak Arrasateko Lanbideko bulegoan aurkeztuko ditu. Udalak, Lanbidek eskaintzan parte hartzeko nahia azaldu eta baldintzak betetzen dituzten langabetuen artean, hautaketa prozesua burutuko du. Programaren bukaeran eta Mankomunitateak deskargua egin ahal izateko, dagokion lan eskaintzaren eta zerbitzuetako eskaintzen erregistro zenbakiez gain udalak langileen kontratuak, nominak eta TC1 eta TC2ko kopiak edo kosteak jasoko duen idazkaritzak egindako ziurtagiria emango dio Mankomunitateari.

**BIGARRENA.-** .....ko udalak egingo dituen ..... kontratuak, Lanbidek ezarritako betebeharrak orokorrean gain, honako baldintzak beteko dituzte:

- .....



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**HIRUGARRENA.-** *Mankomunitateak Lanbidetik jasotako diru-laguntzatik .....euro ordainduko dio .....ko Udalari, %55a kontratuak egiterakoan eta gainontzeko %45a egindako kontratazioen gastua egiaztatzen duenean, beti ere, Mankomunitateak diru-laguntzak jaso eta gero.”*

2. Mankomunitateak Udal bakoitzari ordainduko dion zenbatekoa honako hau izango da:

- Antzuola: 18.414,00 €.
- Aretxabaleta: 37.500,00 €.
- Arrasate: 187.500,00 €.
- Bergara: 75.000,00 €.
- Elgeta: 12.500,00 €.
- Eskoriatza: 36.364,60 €.
- Leintz-Gatzaga: 12.500,00 €.
- Oñati: 62.300,76 €.

• Udal bakoitzak egin beharreko kontratuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Antzuola: 2 kontratu
  - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
  - 1 emakumea
- Aretxabaleta: 3 kontratu
  - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
  - 1 55 urtetik gorakoa
  - 1 emakumea
- Arrasate: 15 kontratu
  - 4 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
  - 2 55 urtetik gorakoa
  - 5 emakumeak
  - 4 baldintza orokorrak
- Bergara: 6 kontratu
  - 2 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
  - 1 55 urtetik gorakoa
  - 3 emakumeak
- Elgeta: kontratu 1
  - 1 emakumea
- Eskoriatza: 3 kontratu
  - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
  - 1 55 urtetik gorakoa
  - 1 emakumea
- Leintz-Gatzaga: kontratu 1
  - 1 emakumea
- Oñati: 5 kontratu
  - 2 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
  - 1 55 urtetik gorakoa
  - 2 emakumeak



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### **4.3.- Agentzia Zerbitzuko behin behineko izendapenak**

Garapen Agentzia Batzordearen irizpen txostenen berri eman da. Txosten hauetan 2021. urtean Agentzia Zerbitzuak, beste Administrazio batzuen finantzazioarekin, kudeatuko dituen hainbat programa garatzeko aldi baterako pertsonalaren beharra jasotzen da.

Alde batetik, teknikari baten beharra, ondorengo programak garatzeko:

- “Goiaz”, lanbide heziketa bultzatzeko azoka eta ekimenak.
- “Eskualdeko enpresen hausnarketa”.
- “Hazilan”, gazte titulatu laneratze prozesuak ahalbideratu eta errazteko.

Lanaldi erdiko administrari baten beharra, aipatu “Hazilan” programa garatzeko.

Eta bi lan orientatzaileen beharra LANBIDEk finantzatzeko ondorengo programak garatzeko:

- “Orientazio Ekintzak”
- “Enplegu Zentroa”

Agentzia Zerbitzuko arduradunaren txostenen berri ere eman da, non esaten den 2021erako izendapen hauek ezinbestekoak direla.

Gobernu Juntak, Garapen Agentzia eta Pertsonal Batzordearen proposamenak jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU.

1. Mankomunitateak lan hauetarako duen lan poltsa erabiliz, 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte teknikari bat bitarteko funtzionario izendatzea, 2021. urtean Garapen Agentzia Zerbitzuak garatu beharreko ondorengo programak garatzeko: “Goiaz”, “Eskualdeko enpresen hausnarketa” eta “Hazilan”. Hileko ordainsari gordina 2.429,08 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:
  - Soldata: 1000,45 € (A2)
  - Lanpostu-mailako osagarria: 427,95 € (18)
  - Berariazko osagarria: 1000,68 €.
2. Agentzia Zerbitzuko lanaldi erdirako administraria den Naiara Aranburu 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte beste lanaldi erdirako bitarteko funtzionario izendatzea “Hazilan” programa garatzeko lan administratiboak egiteko. Hileko ordainsari gordina 1.181,80 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:
  - Soldata: 383,12 € (C1)
  - Lanpostu-mailako osagarria: 201,37 € (17)
  - Berariazko osagarria: 597,31 €.
3. Lan orientatzaileen lan poltsa erabiliz, 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte bi lan orientatzaile bitarteko funtzionario izendatzea LANBIDE-k finantzatzeko 2021eko Enplegurako Orientazio–Ekintza programa garatzeko eta Enplegu Zentroa kudeatzeko. Hileko ordainsari gordina 2.495,91 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Soldata: 1000,45 € (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 427,95 € (18)
- Berriazko osagarria: 1067,51 €.

-----

Une honetan Unai Elkoro irten da bilkuratik eta Ainhoa Cabero sartu da.

-----

### **4.4.- Debagoieneko Turismoko Plan Estrategikoa**

Covid-19 pandemiak sektorean eta turismo ekintzetan izan duen eragina kontuan izanda eta hurrengo urteetan eskualde mailan turismo sektorea bultzatzeko jarraitu beharreko estrategiak eta garatu beharreko ekimenak gidatzeko, indarguneak eta ahulguneak identifikatuz, Agentzia Batzordeko lehendakariak Debagoieneko Turismoko Plan Estrategiko bat garatzea proposatzen da, horretarako, aholkularitza tekniko espezializatua kontratatuz.

Joserra Zubizarretak dio berak ez duela garbi ikusten Plan Estrategiko horren nor-norakoa. Azterketa sakon bat egin beharra dagoela eta turismo zentroaren kokapena ere aztertu beharko litzatekeela. Joserrak gehitu du ez zaiola serioa iruditzen marketing planerako zegoen kreditua Plan Estrategiko hau egiteko erabiltzea.

Ander Garayk dio bera guztiz ados dagoela Joserrak esandakoarekin.

Garazi Larreak erantzun du lanketa hau aurten esleitu baina hurrengo urtean zehar landuko litzatekeela.

Azkenik, botazioa planteatu du lehendakariak, honako emaitza honekin:

- 9 boto Debagoieneko Turismoko Plan Estrategikoa egitearen alde (Maite Antón, Garazi Larrea, Gorka Artola, Ainhoa Lete, Kristina Markina, Iraitz Lazkano, Eugenio Otsoa, Izaro Elorza eta Anik Zubizarreta).
- 4 boto Debagoieneko Plan Estrategikoa egitearen kontra (María Ubarretxena, Ander Garay, Maitane Muñoz eta José Ramón Zubizarreta).
- Abstentzio bat (Ainhoa Cabero).

## **5.- LEHENDAKARITZA**

### **5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak**

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**20/75.-** 1.- OLATZ IZAGIRRE ALDAZABAL Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumeneko informatzaile-teknikari postuan karrerako funtzionario izendatzea, Administrazio Bereziko Eskalan, Zerbitzu Berezien Azpieskalan sartuta.

2.- Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea, 10 egun balioduneko epea duelarik, jakinarazpena hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, bere postuaz jabetzeko.

**20/76.-** Gastua onartzea, eta QUIRÓN PREVENCIÓN, S.L.U. enpresari urtebetez, 2020ko abenduaren 1etik aurrera, lan arriskuaren prebentzio arloko ondorengo espezialitateetako lanak egiteko kontratu txikia esleitzea urteko 7.800 €ko prezioan, gehi BEZA, bere proposamenean zehaztutako baldintzetan.

### Espezialitateak

- Laneko segurtasuna.
- Higiene industrialia.
- Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua.

**20/77.-** Mankomunitate honetako lan-kontratudunen Plantilako etxeko hondakinen bilketa Zerbitzuko gidari-zamaketari lau lanpostu lehiaketa-oposizio ireki bidez betetzeko hautapen prozesuan

- 1.- Onartutako eta baztertutako hautagaien behin behineko zerrenda onartzea.
- 2.- Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea.
- 3.- Oposizio faseko lehen ariketa urtarrilaren 22an, ostiralean, goizeko 9:00etan, egingo da Mankomunitatearen egoitzan. (Nafarroa Etorbidea, 17.- ARRASATE)

**20/78.-** 20/25 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HOGEITA HAMAZORTZI ZENTIMO (259.597,38 €).

**20/79.-** 20/26 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA ZAZPI MILA EHUN ETA HAMAR EURO ETA BERROGEITA BOST ZENTIMO (27.110,45 €).

**20/80.-** 2020ko azaroko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

### 6.- GALDE-ERREGUAK

Ez dago galde-erregurik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

**LEHENDAKARIA**

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**